

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sohüta



Aurkibidea

Udalerria: Sohüta

Sarrera



Mauletik hurbil (2 km iparraldera) dagoen udalerria, Pettarra eskualdean. Zuberoako bigarren herria biztanlez. Bertan dago Zuberoako ikastola nagusia. Haranbeltzeko basoaren (*Sohütako basoa* ere deitua) zati bat udalerriko lurretan dago, aspaldiko denboretan, artzainen eta beren artaldean ihesleku zena.

- **Biztanleak:** 1.106
- **Euskaldunak:** %50,54

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **11**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **11**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak



Maite Barneix

Sohütan sortua, ezkondua, Ospitalepean bizi zen elkarrizketa egin zitzaionean. Senarrak ere hitz egiten du tarteka elkarrizketan zehar.

Jean Pierra Behocaray (1940)



Sohütan sortu zen (Hokinhegi auzoan) Bizkaia izeneko etxaltean. Mekanika ikasketak egiten zituela, anai-arrebetan gehiena zendu zen eta etxondoko segida Jean Pierrak hartu zuen. Haren emaztearen laguntzarekin, etxondoa joan arazten zuen, eta aldi berean Mauleko fabrika batean lan egiten zuen. Xiberoko Zohardia elkartearen kide da Jean Pierra azken 40 urteetan dantza eta kantua sustatzen aritu dena.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Biarnesak Ospitalepean (SOH-001/002)

Ez dira asko, auzoren bat edo beste baino ez.

2. Familia (SOH-001/004)

3 biloba dituzte, eta beste bat sortuko zaie laster. Hiru seme-alaba dituzte. Bost anai-arreba ziren, eta bera 33 urtez bizi izan da Ospitalepean. Amaginarreba eta aita bizi ditu oraindik.

3. Etxeko abereak (SOH-001/005)

Behi blondak eta ardiak dituzte. Esnea saltzen dute, baina ez dute gaztarik egiten. Lan handiagoa da gazta egitea. Etxean edukitzen dituzte, ez dituzte mendira eramaten. Bazka asko erosten dute, lastoa gehienbat. Semeak segida hartu du, nahiz eta laborantza ez izan lanbide erraza. Hobe litzateke diru laguntza gutxiago izan eta abereak behar den prezioan salduko balira.

4. Animalien izenak (SOH-001/006)

"kabalea"-k abere esan nahi du Zubereraz, "zaldia" eta "bohorra" (behorra) hitzak baliatzen dituzte, eta "arresa" ardiarentzat.

5. Zuberoako etorkizuna (SOH-001/007)

Oraindik ere gelditzen dira gazteak Zuberoan, baina etxalde aunitz husten doaz ezkongabe ugari dagoelako. Gazte asko joaten da kanpora lanera. Hala ere, etxeak zaintzen dituzte. Inguruko etxeen egoera komentatzen dute.

6. Zuberoako populazioa behera (SOH-001/008)

78 bizilagun dira Ospitalepean. Zuberoako populazioa ere jaisten ari da. Maulen lehenago askoz ere saltegi gehiago zegoen, baina gaur egun, bakar batzuk baino ez dira. Eskolak ere ixten ari dira, Ospitalepeakoa kasu. Orain Sohütara joaten dira.

7. Ikastolaren inguruko iritzia (SOH-001/009)

Sohütan ikakstola dago, baina eskola askotan "ikasbi" hezkuntza elebiduna ezarria izan da. Euskara ikastearen alde daude, baina ikastola munduan erradikal ugari dagoela sartuta iruditzen zaie, biolentziaren alde daudenak.

8. Politikaren ustela (SOH-001/010)

Ez dute politika maite. Denak daude presidente izateko prest nahiz eta egoera txarra izan.

9. Semea Nafarroako Oskotzen laborari izateko ikasten (SOH-001/011)

Ikastaldi zenbait egiten izan zen etxalde handi batean. 18 laborari bildurik daude bertan, nahiz eta herri txikia izan. 1200 behi eta ardi ugari dituzte, hiru arrazatakoak. Zuberoan ez da halako taldekatzerik, "Lurberri" salbu, baina hauek ez dute lurrik. Ez dute halakoren beharrik ikusten euren herrian.

10. Mitikile, Barkoxe eta Sohüta (SOH-001/012)

Mitikile, Sohüta eta Barkoxe daude ondoan. Barkoxtarrekin "küma" bat dute, hots materiala partekatzen dute. Mitikile handiagoa da, Barkoxe gehiago eta Sohüta oraindik eta gehiago.

11. Ospitalepeko eliza (SOH-001/014)

Donejakue bidean da, eta Unesco-ren patrimonioa da. Gaur egun ere beilariek bertan egiten dute lo. Famatu egin du herria, baina beraiek ez dute asko jarraitzen kontu hori.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com